

ELKAR·EKIN **AIARALDEA**GOA

*"Energia aldakuntzak eragiteko ahalmenarekin
lotuta dagoen magnitudea da" WIKIPEDIA*



BATU ZURE **ENERGIA**
EUSKARAREN **ELKARGOAN**

ZER DA AIARALDEA HERRI ELKARGOA

"Energia aldakuntzak eragiteko ahalmenarekin lotuta da goen magnitudea da"

Energiak elkarren ondoan jarri sortu ziren gurean gau eskolak, ikastolak, euskaltegiak... Elkar-ekinez zabaldu zen hezkuntza publikoan euskarazko eskaintza, elkar-ekinez lege aitortzak erdietsi eta beste hainbat eta hainbat aurrerapausu desagertzearen hizkuntzaren berreskurapen-bidean.

Elkarrekintza eta sinergiak izan dira gaur artean errealtatea aldatzeko abiapuntua, eta horrela izango da etorkizunean ere.

Aiaraldea Komunikazio Leihoa ere, norbanako eta entitate askoren ekarpenak elkarrekintzan jarri eta josiz sortu zen 2010. urtean.

Ibilbide honetan **euskara, komunikazioa eta komunitatea indartzeko tresnak** sortu ditu 4 urte emankor hauetan. Web-gunea, Aiaraldea Irratia eta Egunkaria ere horrelaxe sortu ziren, elkar-ekinez.

Aiaraldea Komunikazio Leihoa oraindik eta AIARALDEAGOA nahi dugu egin orain, energia gehiago elkartu, eraldaketa berriak bultzatzeko gure eskualdean. Horretarako zurekin konpartitu nahi dugun erronka berri bati heldu diegu: **AIARALDEA HERRI ELKARGOA** osatzea eskualdeko norbanako, elkarte, saltoki eta enpresen energiak elkarrekintzan jarri.

Zer da Aiaraldea Herri Elkargoa

Euskararekiko jarrera aktibo bat duten Aiaraldea eskualdeko elkarte, norbanako, saltoki eta enpresek osatzen duten **elkartasun espazio** bat da Elkargoa.

1000 pertsonen energia batzea ezinbestekoa zaigu, euskarazko egunkaria idazten eta irakurtzen jarraitu ahal izateko, www.aiaraldea.com web-gunea indartzeko, komunikabide berriak sortzeko....

Helburua Elkargoko kide diren entitateen garapena eta ongizatea sustatzea da, euskaraz egituratzen den komunitateari zerbitzua eskaini eta

euskararen erabilera soziala suspertzea.

Elkargoaren filosofia elkarri laguntza ematean oinarritzen da, elkar onurabilatzeko.

Elkargoak komunitate proiektu komun bat garatzea du xede: **euskara, komunikazioa, herrigintza tokiko merkataritza** ardatz hartuta.

Norbanakoak, elkarteak, saltokiak eta enpresak

Pertsonen energia, elkar-teena, saltokiena eta enpresen energia batu nahi dugu proiektu berri honetan.

Pertsonen energiak Aiaraldea lagundu dezaten, Aiaraldea bere energiaren bidez saltokiak eta elkarteak lagundu ditzan, azken hauek pertsonak lagundu ditzaten, enpresa handiek txikiago direnak... Elkartasun espazio honetan, energiaren emari etengabe batean eraldaketa berriak bideratu ditzagun.

Elkargoa abiatzeko, 1000 pertsonen energia batzea ezinbestekoa zaigu, euskarazko egunkaria irakurtzen jarraitu ahal izateko, www.aiaraldea.com web-gunea indartzeko, komunikabide berriak sortzeko... eta saretu-ko dugun elkargo horretako partaideak eta euren proiektuak indartzeko.

Zure energia Elkargoan bartzeko prest zaude?

Elkargoan parte hartzea oso erraza da, lehenik eta



01 PERTSONAK

behin **DENBORA, DIRUA** edo **BIAK** eman nahi dituzun erabaki behar duzu.

Elkarpen horren tamaina zehaztu behar duzu gero:

> 20 edo 50 ordu/urtean

> 50 edo 120 €/urtean

Elkargoa izena emateko sartu elkargoa.aiaraldea.com web-helbidean eta zure erregistroa bete ahalizango duzu. Nahiago baduzu bidali iezaguzu telefonoz mezu bat wathsapp edo telegram erabilita 688 647 942 zenbakira, eta deituko zaitugu guk.

Zalantzak badituzu deitu edo idatzi iezaguzu eta jarriko gara zurekin harremanetan.

Elkargoko kide izateko erregistroa bete eta egun batzuetara etxean jasoko duzu Elkargoko txartela eta zure kodea.

Txartel eta kode honen bitartez elkargo kide izatearen abantailak probestu ahalizango dituzu; elkargoa guztiz saretu arte kontzertu, antzerki eta ekitaldi tarako sarrerak, gailu eta bidaien zozketak, eta jarraian azaltzen ditugun bestelako onurak.

1000 lagunen energia batuta-koan, elkarteak eta saltokiak bilduko dira Elkargora

1000 lagunen energia batzea dagure erronka orain, eta hau egindakoan elkarteak eta saltokiak saretzeari ekingo diogu.

Aiaraldea Herri Elkargoak bere baliabideak eskainiko dizkie elkargoko kide diren saltokiei (publizitatea egunkarian zein web-gunean, ikus-entzunezkoen ekoizpena, diseinu eta itzulpen gintza zerbitzuak...) eta modu horretan, saltokiek elkargoko kide diren pertsona eta elkarteetako abantailak eskainiko dizkiete; hala deskontuak euren produktu eta zerbitzuetan nola opariak.

Saltokiek zer jasoko dute

trukean? Aiaraldea Komunikazio Leihok eskaintzen dizkien zerbitzu horiek eta Elkargoko kide diren pertsonen fidelizatzea.

Elkargoaren helburu nagusia euskaraz egituratzen den komunitateari zerbitzua eskaini eta euskararen erabilera soziala suspertzea da.

Elkarteak ere saltokien antzera saretuko dira Elkargoan: Aiaraldea Komunikazio Leihok bere baliabideak eskainiko dizkie euren energia ekarpenaren truke; kudeatzen dituen komunikabideetan euren jarduera eta ekitaldien publikitatea doan zein Elkargoaren azpiegitura materialen erabilpenerako eskubidea (kamarak, ordenagailuak, gailu elektronikoak...), bai eta Elkargoak berak erostea erabakitzen duen azpiegitura berrien erabilera ere (tamaina handiko euskarriak inprimatzeko makinak, soinu ekipak, gaztelu puzgarriak... elkarteek euren eguneroko lana errazteko azpiegiturak hain zuzen ere).

Aiaraldea euskaldunagoa eta dinamikoagoa egitea du xede egitasmo honek. Zure energia Aiaraldea Herri Elkargora batzeko prest zaude? Batu zure energia eta izan zaitetz parteide.



02 ELKARTEAK



03 SALTOKIAK



04 ENPRESAK

279 GARA



1000

LAGUNEN

ENERGIA

BEHAR DUGU

ZUREA EMATEKO PREST?

BATU ZURE **ENERGIA** EUSKARAREN **ELKARGOAN**

€ DIRUA EMAN

Bi mailatako diru ekarpena egin daiteke: 50 euro urtero (ordainketa bakarrean), edo eta 120 euroko ekarpena (aukeran, ordainketa bakarrean zein hileroko 10 euroko ordainagirietan). Ekarpén ekonomiko hau Aiaraldea Komunikazio Leihoaren eta Elkargoaren behar ekonomikoak asetzera bideratuko da.

⌚ DENBORA EMAN

Elkargoko partaide izateko beste modua denbora ematea da: 20 ordu urtean edo 50 ordu urtean. Denbora hau zertan inbertitu elkargoko entitateek zehaztu eta kudeatuko dute. Horretarako denbora ematen duen pertsonari aldeztu aurretik galdetuko zaio zein lan-esparruetan inbertitu nahi duen denbora hori.

EMAN IZENA 4 PAUSUTAN



EKARPEN MOTA

Lehenik eta behin elkargoan egingo duzun energia ekarpena DENBORA edo DIRUA izango den erabaki behar duzu. Bi gauzak emateko aukera ere duzu noski.



EKARPENAREN TAMAINA

Ekarpén horren tamaina zehaztu behar duzu gero:

- 20 edo 50 ordu/urtean
- 50 edo 120 €/urtean

Denbora zein dirua emateko modua era hautatu ahal izango duzu.



EMAN IZENA

Web-helbide honetan sartu eta bete ezazu zure erregistroa: elkargoa.aiaraldea.com. Eskuorri honetan topatuko duzun fitxa ere postaz bidali ahal diguzu: NERBIOI 1, 3. ESK. 01400 LAUDIO (ARABA)



HARREMAN ZUZENA

Zalantzak argitzeko edo eta erregistroa telefonoz egiteko ere dei gaitzakezu telefono zenbaki honetara: **688 647 942**.

Nahiago baduzu bidalguz Whatsapp edo Telegram mezu bat eta deituko zaitugu guk.

ELKARGOKO KIDE IZAN

Elkargoko partaide izateko bete ezazu fitxa hau eta bidalguzu egokien zaizun moduan: Posta arruntez bidali **Nerbioi 1, 3. esk. 01400 LAUDIO** helbidera, posta elektronikoz **elkargoa@aiaraldea.com** helbidera edo Whatsapp zein Telegram erabilia mezu baten bidez **688 647 942** telefono zenbakira.

DATU PERTSONALAK

IZENA

ABIZENAK

JAIoTZE-DATA

JAIoTERRIA

NA ZBKIA.

HELBIDEA

HERRIA

POSTA KODEA

HERRIALDEA

TELEFONO ZBKIA.

E-MAILA

ENERGIA MOTA

Elkargoko kide izateko denbora edo diru ekarpena egitea hautatu dezakezu, edo biak.

€ DIRUA EMAN

☐ 50 €/URTEAN

☐ Ordainketa bakarra

☐ 120 €/URTEAN

☐ 10 euroko 12 ordainketa

☐ Ordainketa bakarra

🕒 DENBORA EMAN

☐ 20 ORDU/URTEAN

☐ 50 ORDU/URTEAN

* Zehaztuko dugu zurekin zertan eman denbora.

DIRU EKARPENA EGITEKO MODUA

☐ BANKETXEAN HELBIDERATUTAKO ORDAINAGIRIAK

KONTUKO TITULARRAREN IZEN-ABIZENAK

BANKETXEA

IBAN ZBKIA.

KONTU KORRONTE ZBKIA. (20 digitu)

☐ DIRU SARRERA EGIN ELKARGOAREN KONTU KORRONTEAN

* Jarriko gara zurekin harremanetan ekarpena egiteko modua zehazteko.

SINADURA

LEGE OHARRA: Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak INFO-AIARALDEA KULTURA ETA KOMUNIKAZIO ELKARTEAREN fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: INFO-AIARALDEA KULTURA ETA KOMUNIKAZIO ELKARTEA. Nerbioi 1, 3. esk. 01400 LAUDIO (Araba)



ABANTAILAK

ELKARGOKO PARTAIDEENTZAT

EKARPENA

20 ORDU edo 50 €/urtean



 **ZOZKETAK**
GAILU INFORMATIKOAK, OTORDUAK, BIDAIAK,
KONTZERTU ETA IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK...

 **OPARIAK**
ONGI ETORRI ELKARGORA OPARIA

 **EGUNKARIA**
PDF-an PAPEREAN ARGITARATU AURRETIK

 **DESKONTUAK
SALTOKIETAN**
IRAILETIK AURRERA

 **AITORTZA**
AIARALDEA KOMUNIKAZIO LEIHOAK EKOIZTEN
DITUEN KOMUNIKAKABIDEAK LAGUNTZEN
DIRENAREN AITORTZA PUBLIKOA

EKARPENA

50 ORDU edo 120 €/urtean

 **ZOZKETAK**
GAILU INFORMATIKOAK, OTORDUAK, BIDAIAK,
KONTZERTU ETA IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK...

 **OPARIAK**
ONGI ETORRI ELKARGORA OPARIA eta
URTEKO OPARIA

 **EGUNKARIA**
ETXeko POSTONTZIAN HAMABOSTEAN BEHIN

 **DESKONTUAK
SALTOKIETAN**
IRAILETIK AURRERA

 **AITORTZA**
AIARALDEA KOMUNIKAZIO LEIHOAK EKOIZTEN
DITUEN KOMUNIKAKABIDEAK LAGUNTZEN
DIRENAREN AITORTZA PUBLIKOA

 **ZERBITZUAK**
%15eko DESKONTUA PUBLIZITATEAN ETA
ZERBITZUETAN (ITZULPENAK, DISEINUA,
ERREDAKZIO LANAK, IKUS-ENTZUNEZKOAK...)

 **INFORMAZIOA eta
PARTE HARTZEA**
ELKARTEAREN BARNE-BULETINA HILERO
URTEKO BATZAR OROKORREAN PARTE
HARTZEKO ESKUBIDEA

BAZKIDETXARTELA

AIARALDEA
HERRI **ELKARGOA**



NORBANAKOA

IZEN-ABIZENAK: JOSE ANTONIA AGIRRESAROBÉ ALDAMA
NA Zbkia: 36.547.568 M
KODEA: N/00425

Elkargoan izen eman eta
egun gutxira etxean jasoko
duzu Elkargoko bazkide bezala
identifikatzen zaituen txartela
eta kodea.

Txartel eta kode honen
bitartez Elkargoko kide
izatearen abantailaz gozatu
ahal izango duzu.

Txartela pertsonala eta
bestereenezina da, eta beraz
txartelaren titularrak baino
ezingo du erabili.



688 647 942



elkargoa@aiaraldeia.com



<http://elkargoa.aiaraldeia.com>



PERTSONAK 01



ELKARTEAK 02



SALTOKIAK 03



ENPRESAK 04



AIARALDEA HERRI ELKARGOIA

Elkargoa euskararekiko jarrera aktibo bat duten Aiaraldeia eskualdeko elkarte, norbanako, saltoki eta enpresek osatzen duten elkartasun espazio bat da, elkargoko kide diren entitateen garapena eta ongizatea helburu duena komunitate proiektu komun bat garatzeko, euskara, komunikazioa, tokiko merkataritza eta herrigintza ardatz hartuta. Elkarri lagundu, elkarrekin eragin eta elkarrekin hazi.